

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

17/2020 Mozioa, otsailaren 26koa, alokairu babestua eta alokairuko errenten tributazioa hobetzea bultzatzeko

Arabako Batzar Nagusiek, 2020ko otsailaren 26an egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

17/2020 Mozioa, otsailaren 26koa, alokairu babestua eta alokairuko errenten tributazioa hobetzea bultzatzeko.

1. Arabako Batzar Nagusiek Eusko Jaurlaritzari eskatzen diote jarrai dezala alokairuko etxebizitzaren parkea sustatzeko egiten duen apustu irmoarekin, etxebizitza pribatuaren eskaintza alokairu babesturantz mugiaraziz, bai eta zuzkidura-etxebizitza eta –ostatu berriak babestuz.

2. Arabako Batzar Nagusiek Eusko Jaurlaritzari eskatzen diote jarrai dezala Bizigune Programa bultzatzen, okupatu gabeko pisuak hartuz alokairu babestuaren bidez merkatuan jartzeko.

3. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote azter dezala Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren tributazioa hobetzea alokairuetatik datozen errentetarako, bai eta ohiko etxebizitzagatiko kenkaria.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko otsailaren 26a

Presidente

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA